

ADMINISTRAZIOAREN ARLOAN JAULKITAKO ZIGILU ZIURTAGIRIAREN POLITIKA

Izenpe 2024

Dokumentu hau IZENPErena da. Kopiarik egitekotan, osorik kopiatu daiteke soilik



ALDAKETEN KONTROLA

BERTSIOA	ALDAKETAK
1.1	<ul style="list-style-type: none">– 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzko uztailaren 23ko 910/2014 Erregelamendura egokitzea.– Eskatzen den dokumentazio identifikatzailea.– Erabiltzeko terminoak eta baldintzak.– Hauek ezabatu dira: Entrega- eta onarpen-orria, Erabilera-baldintzak eta Harpidedunaren kontratua.
1.2	<ul style="list-style-type: none">– Ziurtagiriaren definizioa eguneratzea.– Identitatea egiaztatzea: Europar Batasunaz kanpoko herritarrei eskatzen zaizkien identifikazio-agiriak eguneratzea: AIZ eta pasaporteak.– Hau ezabatu da: 1.4. epigrafea. Ziurtagiria identifikatzea. Goi-mailako administrazio-zigiluaren ziurtagiriak jaulkitzea, 1.5. epigrafea. Xedapen orokorrak: ZPDan araututako alderdiak hartuko dira aintzat.
1.3	<ul style="list-style-type: none">– 2020ko erro berriaren profilak gehitu dira.
1.4	<p>Hauek eguneratu dira:</p> <ul style="list-style-type: none">– Ziurtagiriaren indarraldia– Jaulkitzeko prozedura– Ezeztatzeko prozedura

BERTSIOA	DATA	ALDAKETAK
1.5	2021/10/06	<ul style="list-style-type: none">– Hauek eguneratu dira:<ul style="list-style-type: none">▪ Ziurtagiriaren definizioa.▪ Indarraldia: 2 edo 3 urte.▪ Bizi-zikloaren deskribapena.– Gakoen edukitzailearen kontzeptua ezabatu da.– Datuen pribatutasunari eta babesari buruzko epigrafe bat gehitu da.– Aldaketen kontrolari dagokion epigrafea aldatu da.



1.6	2022/10/13	<p>Epigrafea,</p> <ul style="list-style-type: none">- Azala: eguneraketa.- 1.1. Aplikatzekoa den araudia eguneratu da.- 2.2.2. Eskatzailearen identitatea egiaztatzea,<ul style="list-style-type: none">- Identifikaziorako eskatzen den dokumentazioa eguneratu da.- Indarrean dagoen ziurtagiri kualifikatu baten bidezko egiaztatze-prozedura eguneratu da.- 2.6. Ziurtagiria ezeztatzea,<ul style="list-style-type: none">- Legezko interesa duen hirugarren bat gehitu da ezeztapenaren eskatzaile posible gisa.- izenpe@izenpe.eus helbidera eskaera bat bidaltzearen bidez ziurtagiria ezeztatzeko prozedura eguneratu da.- Online ezeztatzeko aplikazioaren bidezko ezeztapena gehitu da.- 4. Informazioaren segurtasunari buruzko buruzko erreferentziak sartu dira.- 5 eta 6. Epigrafeen ordena aldatu da.- Dokumentua eguneratu da, generoarekin lotutako hizkuntza inklusiboaren ikuspegitik.
1.7	2023/11/06	<p>Epigrafeak:</p> <ul style="list-style-type: none">- 1,1: Definizioa: Administrazio Publikoen Ministerioari egiten zitzaion aipamena kendu da.- 1.3 Erabilera-esparrua eguneratu da.- 1.4.1 Taula eguneratu da (kendu egin dira indarrean ez zeuden profilak)- 2.1 Indarrean dagoen ziurtagiri kualifikatu baten bidezko eskaera eguneratu da.- 2.3 Jaulkitzeko eta entregatzeko prozedura: edukitzailean jaulkitzeko prozedura eguneratu da.
1.8	2024/08/09	<p>Epigrafeak:</p> <ul style="list-style-type: none">- 1.1 Araudia eguneratzea- 2.1 Bideo bidezko identifikazioa sartzea- 1.4.2: 2020ko hierarkiari dagokion taula ezabatzea- 2.4: Egokitzapen semantikoa



AURKIBIDEA

1	ZIURTAGIARIAREN DESKRIBAPENA	5
1.1	DEFINIZIOA	5
1.2	EUSKARRIA ETA SEGURTASUN-MAILA	5
1.3	ERABILERA-ESPARRUA	5
1.4	ZIURTAGIRIA IDENTIFIKATZEA	5
1.4.1	OINARRIZKO CA 2007 HIERARKIA (CN=IZENPE.COM)	6
2	ZIURTAGIARIAREN BIZI ZIKLOA	6
2.1	ZIURTAGIRIA ESKATZEA ETA IDENTITATEA EGIAZTATZEA.	6
2.2	ERAKUNDEAREN ETA ESKATZAILEAREN AHALMENEN EGIAZTAGIRIAK	7
2.3	ZIURTAGIRIA JAULKITZEKO ETA EMATEKO PROZEDURA	7
2.4	ZIURTAGIRIA EGIAZTATZEA.....	7
2.5	ZIURTAGIRIA EZEZTATZEA	8
2.6	ZIURTAGIRIAK BERRITZEA	8
3	ZENBATEKOA	9
4	ZIURTAGIRIEN PROFILAK	9
5	INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA ETA PRIBATUTASUNA	9
6	ALDAKETAREN KUDEAKETA	9
7	ARAZOAK KONPONTZEKO MEKANISMOAK	9



Dokumentu honek *Administrazio-zigiluaren* ziurtagiriari dagokion *Ziurtapen Politika* jasotzen du. *Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios Izenpe SA* enpresak (aurrerantzean Izenpe) jaulki du ziurtagiri hori.

Dokumentu honen helburua da Izenperen *Ziurtapen Praktiken Deklarazioan* mota horretako ziurtagirietarako definitutakoa zehaztea eta osatzea.

1 ZIURTAGIRIAREN DESKRIBAPENA

1.1 Definizioa

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen (urriaren 1eko 40/2015 Legea) esparruan jaulki du ziurtagiri hau Izenpek.

Ziurtagiri kualifikatu gisa konfiguratzen da, 910/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera –910/2014 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko uztailaren 23koa, barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzazko zerbitzuei buruzkoa, zeinaren bidez indargabetzen baita 1999/93/EE Zuzentaraua (aurrerantzean eIDAS), 2024ko apirilaren 11ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024/1183 (EB) Erregelamenduaren bidez aldatua–.

Ziurtagiri honek aukera ematen du administrazioa, zuzenbide publikoko organoa, organismo publikoa edo erakundea identifikatzeko, eta, hala badagokio, organoaren titularraren identitatea identifikatzeko.

Harpideduna izango da: administrazioa, zuzenbide publikoko organoa, organismo publikoa edo erakundea.

Identifikazio eta sinadura elektronikoko eskeman definitutako ziurtatze-mailen arabera, Izenpek jaulkitako zigilu elektronikoaren ziurtagiria erdi-mailakoa da.

Ziurtagiri honen indarraldia 2 edo 3 urteko izan daiteke.

1.2 Euskarria eta segurtasun-maila

Ziurtagiri hau software-euskarrian jaulkitzen da, *eIDAS Erregelamenduan* zehaztutako segurtasun-mailen arabera.

1.3 Erabilera-esparrua

Ziurtagiria harpidedunak erabiliko du bere erakundeak zehaztutako zerbitzuetan eta [Izenperen Ziurtapen Praktiken Deklarazioan](#) zehaztutako baldintzekin eta mugekin erabiltzea onartzen duten hirugarrenek eskaintzen dituztenetan.

1.4 Ziurtagiria identifikatzea

Ziurtagiri horiek identifikatu ahal izateko, Izenpek honako objektu-identifikatzaile (OID) hauek esleitu dizkie.



1.4.1 Oinarrizko CA 2007 hierarkia (CN=izenpe.com)

ADMINISTRAZIO-ZIGILUA					
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID politika	eIDAS, identifikazio-maila	Sinadura mota eIDAS
Administrazio-zigilua	IZENPEren software- edukitzailea	QCP-I	1.3.6.1.4.1.14777.4.11.2	Oinarrizkoa	Aurreratua
	HSM	QCP-I	1.3.6.1.4.1.14777.4.11.3	Oinarrizkoa	Aurreratua
	HSM	QCP-I	1.3.6.1.4.1.14777.9.3.3	Oinarrizkoa	Aurreratua

2 ZIURTAGIRIAREN BIZI ZIKLOA

2.1 Ziurtagiria eskatzea eta identitatea egiaztatzea.

Izenpek eskatzailearen identitatea egiaztatuko du modu hauetako edozeinetan:

➤ [Aurrez aurre](#)

Eskatzaileak *eskabide-inprimakia* beteko du eta ziurtagiria *erabiltzeko terminoak eta baldintzak* onartuko ditu.

Erregistro-entitatean agertuko da (Izenperekin dagokion legezko tresna izenpetu duen administrazioa), dokumentu hauek dituela:

- **Espainiako nazionalitatea duen herritarra:** NANA, pasaporte edo gida-baimena.
- **Europar Batasuneko herritarra:** jatorriko herrialdeko nortasun-agiria edo pasaporte, eta harekin batera, Atzerritarren Identifikazio Txartela edo Europar Batasuneko Herritarren Erregistroak jaulkitako agiria edo AIZ emateko agiri ofiziala.
- **Europar Batasunaz kanpoko herritarra:** pasaporte edo gida, eta harekin batera, Atzerritarren Identifikazio Txartela edo AIZ emateko agiri ofiziala.

Eskatzaileak identifikazio-dokumentuen fotokopia gehitu beharko du, edo Izenperi baimena eman beharko dio datuak administrazio eskudunaren aurrean egiaztatzeko, *Eskabide Inprimakiaren* bitartez.

➤ [Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeraren sinadura notarioak egiaztatzea](#)

Eskatzaileak:

- *Jaulkitzeko Eskaera* bete eta sinatuko du, eta *Erabiltzeko terminoak eta baldintzak* onartuko ditu. Notarioak eskaeraren sinadura legitimatuko du.
- Beharrezko dokumentazioa bidaliko du helbide honetara: **Izenpe SA - Tomas Zumarraga** Dohatsuaren kalea, 71 - 1. solairua – 01008 Gasteiz.



- Edo EU TSL (Trusted Service List) zerrendan sartuta dagoen CA batek jaulki duen eta [indarrean dagoen ziurtagiri kualifikatu baten bidez](#); bertan, [azkeneko aurrez aurreko identifikazioa 5 urtetik gorakoa ez dela egiaztatu beha da](#).

Horretarako, eskatzailea www.izenpe.eus webgunera sartuko da eta *Jaulkitze Eskaera* sinatuko du, adierazitakoaren arabera jaulkitako ziurtagiri bat erabilita.

- Urrutitik identifikatzea, hauen arabera,

ETD/465/2021 Agindua, maiatzaren 6koa, ziurtagiri elektronikoko kualifikatuak emateko bideo bidezko urruneko identifikazio-metodoak arautzen dituena, eta uztailearen 26ko ETD/743/2022 Agindua, bideo bidezko urruneko identifikazio-metodo kualifikatuak arautzen dituen maiatzaren 6ko ETD/465/2021 Agindua aldatzen duena.

Bideo bidezko urruneko identifikazio-prozesua laguntzarik gabe egingo da, operadore baten eta eskatzailearen arteko lineako interakziorik gabe, eta, ondoren, operadore batek berrikusiko du.

Prozesua,

- Eskatzaileak gailu mugikor bat izan beharko du kamerarekin, edo webcam bat eta mikrofono bat.
- Izenpek zure nortasun-agiria (NAN/AIZ) erakusteko eta interakzioak eta jarduera fisikoak egiteko eskatuko dizu bizi-proba gisa. Prozesu hori grabatu egingo da.

2.2 Erakundearen eta eskatzailearen ahalmenen egiaztagiriak

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Erakundearen IFZ.
- Eskatzaileak ordezkari izateko duen ahalmenaren egiaztageria.

2.3 Ziurtagiria jaulkitzeko eta emateko prozedura

Ziurtagiria honakoetan jaulkitzen bada:

- [Edukiontzia](#)
Eskatzaileak operaciones@izenpe.eus helbidera bidaliko du ziurtagirien edukitzailean sortutako ziurtagiriaren eskari teknikoa. Jarraian, Izenpek ziurtagiria jaulkiko du:
- [Zain](#)
Izenpek kudeatuko du euskarri honetan jaulkitako ziurtagiriak jaulkitzeko eta emateko prozedura.

2.4 Ziurtagiria egiaztatzea

Harpidedunak 15 egun balioduneko epea izango du, ziurtagiria ematen denetik, behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzeko eta, behar izanez gero, Izenperi funtzionamendu-akatsak jakinarazteko.

Funtzionamendu-akatsak kausa teknikoen ondoriozkoak direnean (ziurtagiriaren euskarriaren funtzionamendu txarra, ziurtagiriaren errore teknikoa, eta abar) edo IZENPERi egotz dakizkiokeen



ziurtagiriko datuetako erroreak direnean, orduan soilik ezeztatuko du IZENPEk ziurtagiria eta beste bat jaulkiko du, ondoriozko gastuak bere gain hartuta.

2.5 Ziurtagiria ezeztatzea

➤ Ezeztatzeko arrazoiak.

Ziurtapen Praktiken Deklarazioan kontsulta daitezke: www.izenpe.eus.

➤ Ezeztatzeko eskaera

Honako hauek eska dezakete ziurtagiria ezeztatzea:

- [Harpidedunak](#): erakunde harpidedunaren legezko ordezkariak, langileen arduradunak edo aurrekoek baimendutako hirugarrenak dute ziurtagiria ezeztatzea eskatzeko baimena.
- Ziurtagiriaren [eskatzaileak](#).
- [Izenpek](#), ZPDn identifikatutako kausetan.
- Legezko interesa duen hirugarren pertsonak.

➤ Prozedura

Ziurtagiria ezeztatzea eskatzen duenak IZENPEren aurrean tramitatuko du ziurtagiria ezeztatzeko eskabidea.

Honako bide haueetatik ezeztatu ahal izango du ziurtagiria, edozein unetan:

- [Aurrez aurre](#), IZENPEri www.izenpe.eus webgunean hitzordua eskatuta.
- [Posta bidez](#), ziurtagiria *Ezeztatzeko Eskaera* –notarioaren aurrean sinatua eta legitimatua– helbide honetara bidalita: IZENPE SA - Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71 - 1. solairua – 01008 Gasteiz.
- Ezeztatzeko eskaera, sinatuta, izenpe@izenpe.eus helbidera bidalita, EU TSL (Trusted Service List) zerrendan dagoen CA batek jaulkitako ziurtagiri kualifikatu batekin.
- Online [ezeztatzeko aplikazioa](https://servicios.izenpe.com/gestionCertificados/) eskuragarri dago: <https://servicios.izenpe.com/gestionCertificados/>

Eskaera jasotzen duenetik 24 orduren barruan (lanegun batean) ezeztatuko du ziurtagiria IZENPEk, eta ziurtagiriaren egoeraren aldaketaren berri emango die eskatzaileari eta harpidedunari, posta elektronikoaren bidez.

2.6 Ziurtagiriak berritzea

Ziurtagiria iraungi aurreko 60 eguneko epean berritu ahal izango da ziurtagiria.

IZENPEk ziurtagiria jaulkitzeko eta entregatzeko aurreikusitako prozeduraren arabera tramitatuko du berritzea.



3 ZENBATEKOA

Izenpek urtero argitaratzen ditu aplika daitezkeen tarifak www.izenpe.eus webgunean.

4 ZIURTAGIRIEN PROFILAK

Izenpek www.izenpe.eus webgunean argitaratzen ditu ziurtagirien profilak.

5 INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA ETA PRIBATUTASUNA

Izenpek www.izenpe.eus/datos webgunean argitaratzen du pribatutasunari eta informazioa du babesari buruzko informazioa.

6 ALDAKETAREN KUDEAKETA

IZENPEren Segurtasun Batzordeak onartuko ditu Politika honetan egindako aldaketak.

Berriazko dokumentazioaren bertsio eguneratuak www.izenpe.eus helbidean kontsultatu ahal izango dira.

7 ARAZOAK KONPONTZEKO MEKANISMOAK

Alderdiek elkarren artean sor daitezkeen edozein gatazka Zuzenbide Kolaboratiboko prozesu bidez ebaztea adostu dute. Adostasunik lortu ezean, Gasteizko Epaitegi eta Auzitegietara jo ahal izango dute.